



## Hernialdeko alkateak eta zinegotziek dimititu egin dute

**JARDUNEAN** ▶ Urte eta erdi bete dute jardunean, «aldaketaren itxaropenez»

**UDALA** ▶ Udala idazkariaren eta administratzailearen esku geldituko da

**HAUTAGAIK** ▶ Aurkeztu zen kandidatura ilegalizatu egin zuten eta EA-EAJk, dimititu ▶ 4

TOLOSA ▶



HITZA

### Laskorainen elkartrukea Kataluniako koroarekin

Etzi kontzertua eskainiko dute bi abesbatzek ▶ 3

LEITZA ▶

### Buruko gaixotasunak izan dira hizpide

Herrietan tratatu ahal izatea eskatu dute adituek ▶ 7



### Martxoan hasiko dira eskola berria eraikitze lanak

**ALTZO** ▶ Eskola berria eraikitze lanak martxoan hasi eta zortzi-hamar hilabeteko epean amaituko dira. Imaz Bertsolaria izeneko eskola Santa Barbara basilizaren eta pilotalekuaren atzealdean kokatuko da —argazkian— Aurreko astelehenean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkari bat izan zen herrian

proiektua azaltzen eta egutegia Udalari idatziz pasatzeko konpromisoa hartu zuen. Eskolak eta inguruak 1.760 m<sup>2</sup> inguruko azalera hartuko du. Eraikinak bi solairu izango ditu, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza emango da bertan. Guztira 814.000 euro kostatuko da proiektuaren exekuzio materiala. OLAIA ESKITXABEL ▶ 5

**ELOLA**  
bede ALTZARIAK

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak.
- Armairu enpotratuak neurrira.

Tel.: 943 65 29 01  
Lizardi poeta, 2  
1o egiteko eta atsedeen hartzeko onena

**TOLOSA**

**ESNAZU**  
jantziak

**GAUR IREKIERA,**  
inaugurazioa 19:00etatik 21:00etara  
**Gonbidatuta zaudete denak**  
San Juan, 61 • Alegia • Tel.: 943 65 37 94

JAIK ▶

# Adin guztientzako aukera zabala gaurtik aurrera Berazubín

Bihar Doctor Deseok eskainiko duen kontzertuak osatzen du egitarauaren apusturik gogorrena aurten



Aurten ere dantzaldiak eskainiko dira auzoko plazan; disko festa astelehen gauen izango da. AITOR ELDUIEN

## Mendiko bizikleta trabesia

Berazubiko jaien programaketa barruan mendiko bizikleta trabesia izaten da, Mendikute elkarteak antolatua, asteartean 10:00etan.

Eguraldia baldintza garrantzitsua da jendea aurkezterako orduan. «Eguraldi onarekin ehun pertsonatik gora biltzen dira; bestela, ordea, laurogei inguru», azaldu du Iñaki Izagirre Mendikute elkarte ordezkaririk.

Ibilbidea hogeita bi kilometrokoa da. Berazubitik abitu eta Zazpi bide aldera joango dira txirindulariak, gero Leaburua eta hurrengo helmuga Belauntza izango da. Ondoren, Arrospe mendialdera igoko dira. Puntu honetan hornidurak aurkitu ahalko dituzte lasterkariak. Gaztelura bidean jarriko dira eta azken txanpan San Blas auzora ailegatuko dira. Ibilbidea amaitzeko Berazubira bueltatuko dira.



Txirindulariak lanean. MENDIKUTE

Kaskoa eramatea derrigorrezkoa da parte-hartzaileentzat eta helmugara ailegatzen direnean, *lunch*-a izango da denentzat. Gainera, bizikletak garbitzeko dutxak eta mangorak eskainiko dira. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete laguntzaile eta babesle guztiei. ◀

### NOELIA LATABURU

Gaur arratsaldean emango zaie hasiera txupinazoarekin Berazubi auzoko jaiak. Asteartea bitartean aukera zabala izango da adin guztietako jendearentzat.

Gogor datoz, gainera, gazteei zuzenduta dagoen egitarauaren aukerak. Gogorrena, dudarik gabe bihar gauean eskainiko den kontzertua izango da. Doctor Deseo talde bilbotarra entzungai izango da auzoan, 23:00etatik aurrera.

Etxeo gaztetxoek ere ez dute aspertzeko betarik izango Berazubira gerturatuz gero. Beraien egun berezia astelehen izango da. Bertan izango dituzte Niruka, Mixka eta Kuki pailazoak eta, besteak beste, globoflexia praktikatzeko aukera izango dute.

Antolatzaileek hainbat berrikuntza sartzea ere erabaki dute eta lehiaketa berriak sartu dituzte, bost egun hauetan zehar ospatuko direnak, txapel jaurtiketa, besteak beste.

### EGITARAUA ▶

#### GAUR (OSTIRALA)

18:00. Txupinazoa.  
22:30. Antzerkia.  
23:30. Dantzaldia Ezein taldearekin.

#### BIHAR (LARUNBATA)

11:30. Auzoko plazan 3x3 futbito txapelketa.  
14:30. Babarrun jatea.  
16:00. Mus azkarra txapelketa 66 eta Ordizian.  
17:00. Behi kozkorrek eta poney-ak txikiak.  
20:30. Afaria auzoko plazan.  
23:00. Kontzertu erraldoia Doctor dese taldearekin. Ondoren Akelarre taldea.

#### ETZI (IGANDEA)

09:00. Txistulari bandaren aldetik, goiz eresia.  
12:00. Toka lehiaketa kornarkala.  
13:00. Paella lehiaketa.  
14:30. Bazkaria.  
17:00. Behi kozkorrek eta poney-ak txikiak.  
19:00. Patata tortilla lehiaketa auzoko plazan.  
23:00. Dance eta hip hop erakusketa. Ondoren, DJ Bull.

#### ASTELEHENA 11

11:30. Marrazki lehiaketa txikiak.  
12:30. Toka txapelketa umeentzat.  
16:30. Niruka, Mixka eta Kuki pailazoak.  
18:00. Merienda banaketa auzoko haurrentzat.  
19:00. Buruhandiak.  
19:30. VI. Postre Lehiaketa.  
20:30. Afaria.  
22:30. Danborrada nagusia nekaezinekin.  
00:00. Disko festa gogoekin.

#### ASTEARTEA 12

09:00. Goiz eresia txistulariekin eta meza ordu berean.  
10:00. Mendi bizikletako trabesia.  
11:30. Toka emakumeentzat.  
12:00. I. Txapel Jaurtiketa.  
13:00. I. Bakailu saltsa eta balkoirik alaiena txapelketa. Ondoren bazkaria.  
17:00. I. Futbolin lehiaketa.  
19:00. Dantza saioa.  
20:00. Jaien amaiera.

### TELEFONOAK ▶

#### LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**  
▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernika arbola: 00 69 00  
▶ Amaroako dispen.: 67 26 37  
▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

#### GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Taxis: 67 04 20

#### KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04  
▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32  
▶ Ttipi Itapa ald.: 948 631888

#### EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06  
▶ Arramele-AEK: 67 12 14  
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

#### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Queiglas M.A., Euskal Herria, 3, Ibarra. 943 67 32 74  
Erbiti O., Lizarraga, 7, (Leitza). 112.

#### TOLOSALDEKO HITZA

**Tolosaldeko Hitza.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publi@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.  
villabona\_aitzondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoeta.** 687 41 00 22  
anoeta@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32.  
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitza.** 687 41 01 18.  
leitza@tolosaldeko-hitza.info

### iragarki laburrak ▶

#### ESKAERA

**Gasteizera joateko.**  
Astelehenetik ostiralera, eguerditan, Tolosatik Gasteizera autoz joateko norbait behar dut. Gastuak erdibana. Telefona: 600 05 42 27.

**HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu**

**943 30 43 46**

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

KULTURA ▶

# Kataluniako L'Espinguet eta Laskorain abesbatzak, batean

Kontzertua eskainiko dute elkarrekin etzi iluntzean Jesuitinetan, eta askotariko ekintzak egingo dituzte egunotan; kataluniarrak tolosarren etxeetan egongo dira



Laskorain abesbatzak Kataluniako Vilafranca del Penedes herrian eman zuen kontzertuko irudia. HITZA

IRATXE ETXEBESTE

Laskorain abesbatzak Kataluniako L'Espinguet abesbatzako kideen bisita izango du asteburuan. Gaurtik asteartera etxean hartuko dituzte Tolosako abeslariak Kataluniako Vilafranca del Penedes herriko lagunak, «orain hilabete batzuk haiengana egin genuen bisitaren osagarri moduan». Etzi kontzertua eskainiko dute bi abesbatzek elkarrekin, eta horrez gain askotariko ekintzak egiteko aukera izango dute.

Esaterako, Donostiara eta Larraulera irteera egingo dute. San Telmo, Alde Zaharra, kaia, Alderdi-Eder... ikusteko parada izango dute gaztetxoek Donostian, eta Larraulen museoa eta Olazarreko ibilaldi laburtua «ikusgai izango ditugu». Tolosan ere ibiliko dira, bertako azoka, eraikin garrantzitsuenak, Gorrotxategi zozogintza museoa eta Agirrerren musikatresna tailerra ezagutzeko.

1965ean sortu zen L'Espinguet taldea, eta 4 eta 16 urte bitarteko 65 neska-mutilek osatzen dute, hiru taldetan banatuta. Secretariat de Corals Infants de Katalunyo kide dira, eta honezkero bospasei disko argitaratu dituzte. Aukera duten aldiro joaten dira kanpora: besteak beste, Espainian, Alemanian, Herbeheretan, Frantzia, Eskozian eta Eslovenian izan dira. Anna Mallofrèren zuzendaritzapean jarduten dute, Txell Montserrat pianojoleak lagunduta.

Laskorain ikastolako abesbatza orain hamabi urte sortu zen, eta 70 ikaslek osatzen dute taldea Idoia Iraolaren eta Naiara Mintegiaren gidaritzapean. 11 eta 15 urte artekoak, Laskorain Txiki abesbatzakoak, ariko dira etziko kontzertuan, kataluniarrekin batera.

ERLIJIOA ▶

## Donostiako gotzainaren bisita Korpus Kristira

Donostiako Gotzain Juan Maria Uriarte Tolosako Korpus Kristi parrokian izango da igandean lehenengoz, eta bertako parroko Juan Otaegik gonbita egin nahi die eliztar guztiei etzi 12:00etan bertan emango duen eukaristian parte hartzeko. Parrokiako erretore berriari eta laguntzaileari kargu ematera dator Juan Maria Uriarte, eta bide batez, aurreko erretoreari, Aita Jose Antonio Labakari, agurra egitera.

KULTURA ▶

## 'Ardoaz' lana eskainiko du gaur Ander Lipusek

Galtzaundi Euskara Taldeak antzerki emanaldia antolatuko du gaurko. Ander Lipusek *Ardoaz* antzezlan eskainiko du Amaro azokan elkartean 22:00etatik aurrera. 40 minutu iraungo du antzerki saioak; emagaldi batekin maitemintzen den gizonaren «istorio krudelak». Neskaren hiltzeko pertsonaiaren tragedia bere generora eramango du, amets alkoholikoetan murgildurik.

AHT ▶

## AHT-ren aurkako taldeak deialdia egin du biharko

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak batzarrera deitu du biharko, 10:00etan, Kultur Etxean, Abiadura Handiko Trena eraikitzeak ingurumen, gizarte, ekonomia, nekazaritza eta lurraldearen orekan «kalte larriak» eragingo litzukeela azaltzeko eta azaroaren 6an, Donostiako Bulebarretik abiatuko den nazio mailako manifestazioaren berri emateko. Bilkuraren ostean, eguerdi aldera, elkarretaratzea egingo dute bihar Trianguloan.

EGITARAUA ▶

**GAUR (OSTIRALA)**

**20:00.** Harrera Ikastolan. Gazteak etxeetan banatuko dituzte eta bertan afalduko dute abesbatzetako kideek.

**BIHAR (LARUNBATA)**

**10:00.** Tolosa ezagutuko dute, gida turistikoaren laguntzarekin, Triangulotik abiatuta. Jarraian, Udalak harrera egingo die bisitari guztiei.

**14:00.** Etxeetan bazkalduko dute abeslariak.

**16:00.** Tren geltokian elkartuko dira guztiak. Autobusean Larraulera joango dira herria ezagutzeko. Zazpiak aldera etxetara joango dira askaltzeko.

**21:00.** Tolosako Orfeoia Leidorren eskainiko duen kontzertura joango dira bi abesbatzetako kideak.

**ETZI (IGANDEA)**

**10:00.** Geltokitik Kursaalera abiatuko dira. Ibilaldia egingo dute oinez Donostian.

**12:00.** Ibilaldia trenez Donostiatik barrena. Igeldon bazkalduko dute ondoren.

**18:00.** Etxera itzuli, askaldu eta entsegua.

**20:00.** Bi abesbatzen kontzertua eskainiko dute Jesuitinetan.  
▶ **Errepertorioa.** **Laskorain abesbatza.** *Lau teilatu* (David Azurzak moldatua); *Xarmangarria zera* (Francisco Escudero); *Gaudete* (Ben Parryk moldatua); *Xalbadorren heriotza* (Xabier Lete, Iñaki Otañok moldatua); *Honono*; *Amaren bularra* (Xabier Lete, Iosu Elberdinek moldatua); *Izar ederra* (Francisco Escudero); *Skorro korro* (T: Loock-ek moldatua).

**L'Espinguet de Vilafranca del**

**Penedès.** *Lui la lui* (Chequia, tradizionala); *Cançó de bres per a una princesa negra* (A. Rodriguez Sabanes/Gabriel Janer Maniles); *Calma de la mar* (Katalunia, tradizionala); *Xocolata desfeta* (Miquel Martí Pol/Antoni Miralpeix); *Metsästyslaulu* (Vellojormis, Finlandia); *We shall overcome* (Pete Seeger, Anglosajoiak); *Travnezki zo zeleni* (Eslovenia, tradizionala); *Caminito del indio* (Atualpa Yupanki); *Mama* (Errusia, B. Gravrillina); *Zai itxoiten* (Javi Busto).

**Bi abesbatzak elkarrekin.** *Nere herriko neskatza maite* eta *Ton bare no te nas*.

**21:30.** Afaria Kultur Etxean.

**ASTELEHENA, HILAK 11**

**Goizean.** Bakoitza bere etxeko kideekin egongo da. Eguerdian irteera tren geltokiko apartamentuetatik.

iragarki laburrak ▶

**Administrazio laguntzaileak.**

Lanpostu librean bete behar dira: Hernani, Usurbil, Beasain, Errenteria. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakian.

**Gidariak.** Hamar lanpostu bete behar dira: Arrasate, Zizurkil, Deba, Villabona, Oreteta, Antzuola, Legazpi.

Informa zaitetz eskaintza ezberdinen inguruan. Informazioa doan. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

**Ostalaritza.** Sukaldariak, zerbitzariak, sukalde laguntzaileak. Lanpostu finkoak Eusko Jauriaritzan, udaletan, Foru Aldundian eta

ikastetxeetan. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

**Ertzaintza.** 200 lanpostu bete behar dira. Baldintzak: Eskola agiria. Izen-emate epea zabalik. Informazioa doan. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

**Vital Kutxa.** 70 lanpostu libre.

Datozen inkorporazioak. Informazioa doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira.

**Mantenimendua.** Arotzak, igeltseroak, elektrizistak, pintoreak eta peoiak. Lanpostu finkoak udaletan. Informazioa doan. Deitu

943 65 01 93 telefono zenbakira.

**Udaltzaingoa.** 19 lanpostu bete behar dira: Hondarribian, Iruen, Arrasaten, Beasainen, Ordizian, Oiñan, Mutrikun eta Eibarren. Informa zaitetz dohainik. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

HERNIALDE ▶ UDALA

# Herriko alkateak eta zinegotziek dimisioa aurkeztu dute

Jardunean zeramaten urte eta erdi, Udala ez zelako osatu; idazkaria eta administrailearen esku geldituko da Udala

JOXEMI SAIZAR

2003ko maiatzeko udal hauteskundeetatik jardunean jarraitzen zuen Joxe Mari Iraola alkateak eta bere kandidatura independenteko zinegotziek dimisioa aurkeztu dute lehenengo astean egindako puntu bakarreko udalbatzarrean eta, ondorioz, Udala idazkaria eta administrazioarekin eskuetan gelditu da.

«Egoera oso arraroa zen. Udal hauteskundeetan ez ginen aurkeztu. Aurkeztu zen kandidatura ilegalizatu egin zuten eta EA-EAJK dimisioa aurkeztu zuen. Beraz urte eta erdi jardunean jarraitu dugu, egoera aldatuko zen itxaropenean. Aldaketarik ez dagonez, dimititzea erabaki dugu», adierazi dio HIRZARI alkateak. Aurreko astelehenean, irailak 27, egin zuten dimisioa aurkezteko udalbatzarra eta erabakiaren berri eman diote Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Iraola kandidatura independenteen zerrendaburu gisa lau



Hernialdeko Udala ordezkaririk gabe dago gaur egun. IMANOL GARCIA

legealdi bete ondoren, azken udal hauteskundeetan ez zen aurkeztu. Herritarrei Zabalduz izeneko kandidatura aurkeztu zen, baina ilegalizatu egin zuten. EA-EAJ, aurkeztu ondoren, kargu hartzeko egunean ez zen joan eta dimisioa azaldu zuen. Ondorioz jardunean jarraitu dute Iraolak eta bere taldeki-deak.

Eskualdeko beste bi herritan —Iruña eta Leaburu— ere jar-

dunean jarraitzen dute aurreko legealdiko udalak, baina kasu hauetan 2003ko hauteskundeetan aurkeztu egin ziren eta ilegalizatu egin zituzten, ezker abertzalearekin lotutako herri plataformak izateagatik.

Herenegun Foru Aldundiak PPri leporatu zion egoera honen errua, Alderdien Lege berriak udal gestora izendatzeko eskumenak kendu dizkiolako Aldundiari.

VILLABONA ▶ POLITIKA

## Inkomunikazio egoeran jarraitzen du Aiertzak

Jaiotzez billabonatarra den gaztea Madrilen dago Guardia Zibilak atxilotu ondoren

IMANOL GARCIA

Aimar Aiertzak inkomunikazio egoeran jarraitzen du, herenegun Guardia Zibilak Iruñean atxilotu eta Madrilera eramanez ondoren. Hogeita sei urteko gaztea Villabonan jaio zen eta gaur egun Irunen zegoen erroldatuta. Barne Ministerioak «ETAn sartzeari baiezkota ematea» leporatzen dio. Vicente Ripa Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkaririk, «ustez ETako kide berriak bilatzeko arduraz» zuela adierazi zuen.

Atxiloketaren uean, Aiertza bere neskalagunarekin zegoen, zortzi hilabeteko haurdun dagoena. «Urdukitasun krisia» izan ondoren, Irunen egin zen asanbladan esandakoaren arabera, erietxera eramanez zuten. Azterketa egin ondoren eta etxera bueltatzekoan, guztia «hankaz gora» aurkitu zuen neskalagunak. Atxiloketan zegoen idazkari judizialak egindako txostenaren kopian, «jaso dezakadan tratu fisikoaren beldur naiz» hitzak azaltzea eskatu zuen Aiertza berak.

ASTEASU ▶ KIROLA

## Goi mailako pilota jaialdia frontoi berrian

Titin II.a eta Lasa III.a, Xala eta Barriolaren aurka lehiatuko dira partida nagusian

I. GARCIA

Kultur jardunaldiari amaiera emateko goi mailako pilota partida jokatu da gaur frontoi berrian: Titin II.a eta Lasa III.a, Xala eta Barriolaren aurka. Aurretik Berraondo eta Arroyo II.a, Baleztena eta Ze-

zeagaren aurka arituko dira. Pilota jaialdia gaueko 22:00-etan hasiko da.

Sarrerak udaletxean daude salgai eta partidaren aurretik frontoiaren leihatilan. Eserita —gutxi batzuk gelditzen dira— 20 euro balio dute eta zutik 15 euro.



## Villabona - Kultura

— UMOREA —  
**'RECHAZA  
IMITACIONES'**

(Mikel Pagadi, Harkaitz Zendoia, Jon Iraola)

Urriak 8 Ostirala • Gaueko 22:30etan  
GUREA ARETOAN



Udal Kultura Batzordea



## Udalbiltzako auzipetuen aldeko elkarretaratzea

**ADUNA** ▶ Udalak astearteko bilkuran Udalbiltzatik bidalitako mozioa onartu zuen eta ondoren elkarretaratzea egin zuten, «Bai Udalbiltzari, bai Euskal Herriari» lelopean. Mozioan, besteak beste, Adunako Udalak «bere elkartasun osoa adierazten die egotziak izan diren hogeitabat pertsonen, baita Udalbiltzako kide izateagatik aurretik prozesatuak izan direnen eta egun espetxean daudenei ere». HITZA



ALTZO ▶ HEZKUNTZA

# Imaz Bertsolaria eskola berria eraikitze lanak martxo inguruan hasiko dira

Udalari egutegia idatziz igortzeko konpromisoa hartu zuen Hezkuntza Saileko ordezkari batek joan zen astelehenean, urriaren 4ean, egindako bileran



Eskola berria Santa Barbara basilizaren eta pilotalekuaren atzekaldean eraikiko dute. O.ESKIXABEL

## OLAIA ESKIXABEL

Eusko Jaurlaritzako ordezkari bat Altzora gerturatu zen pasa den astelehenean, urriaren 4ean, herrian egitekoak diren eskola berriaren inguruko proiektua azaltzera.

Izan ere, orain dela bi urte, 2002ko urrian, Eusko Jaurlaritzaren esku utzi zuen Udalak Santa Barbara basiliza eta pilotalekuaren atzekaldeko lurzatia, bertan Imaz Bertsolaria eskola berria eraikitze. Era berean, hainbat puntu adostu zituen Eusko Jaurlaritzak hirigintza batzordearekin eta herriko arkitektoarekin egindako bileretan: eraikin berriaren behin betiko kokapena, lekua azalera, pilotalekuarekiko errespetatu beharreko distantziak...

Apirilean Hezkuntza Ordezkaritzak irailan lanak hasiko zirela adierazi zion Altzoko Udalara; hori gertatu ez zenez,

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariarekin bilera irekia burutu zuten pasa den astelehenean, proiektuaren nondik norakoan berri zuzena jasotzeko asmoz.

Bileran, eskola berriaren proiektuaren berri emateaz gain, «lanak martxo inguruan hasiko» direla zehaztu zuen Hezkuntza Saileko ordezkariak. Legeak jasotzen duen bezala, lanak hasi eta zortzi, hamar hilabete inguruan gauzatu da eskola. Udalari lanen egutegi zehatz bat bidaltzeko konpromisoa ere hartu zuen.

## Bi solairuko eraikina

Eskola berriak eta inguruan egingo diren jolaslekuek 1.760 m<sup>2</sup> inguruko azalera hartuko dute.

Bi solairu izango ditu eskola berriak; bertan, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eman- go dira.

neko sarrera izango dute; jolaslekua, erdi estalia izango da eta Lehen Hezkuntzako ikasleek izango dutenarengandik berezita egongo da. Sukaldea eta jangela ere bertan izango dira; administrazioa, irakasle gela, garbitzaleentzako gela... ere izango dira lehenengo solairu horretan.

Bigarren solairuan, Lehen Hezkuntzako hiru gela eta beste bi gela txiki egongo dira. Gela txikietan, talde txikientzako gela eta balioanitzeko gela egokituko dira. Liburutegia, komonak... ere izango dira.

Ikasleentzako gela guztiak hegoaldera begira egongo dira.

Lehen Hezkuntzako ikasleentzat beste jolasleku bat egokituko da; bertan, saskibaloi pista egokitzea aurrirakusten da.

Bi solairu izango dituen, ezinduentzat egokitutako igo- gailua izango du eskola berriak.

Proiektuaren exekuzio materialaren zenbatekoa 814.000 eurokoa izango da.

ALTZO ▶

## Jubilatu Eguneko bazkarirako izen-ematea zabalik

Udaleko Gizarte Ongizate Batzordeak Jubilatu Eguna antolatu du urriaren 17rako. Egun guztian zehar luzatuko den egitaraua antolatu dute; 12:30ean, meza nagusia izango da eta ondoren, Artea dantza taldearen emanaldia eta Mikel Mendizabal eta Jon Martin bertsolarien saioaren tartea izango da. Arandia jabetxean bazkalduko dute, ohiturari jarraituz; eta bazkal ondorena Xafre eta Zaharrak girotuko dute. Izena udal- txean eman daiteke (943 65 24 13) urriaren 14a baino lehen.

IKAZTEGIETA ▶

## Nafarroa Oinezera joateko autobusa

Urriaren 17an Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu dute. Izena emateko epea irekita dago; azken eguna datorren osteguna, urriaren 14a, izango da. Izena udaletxean eman behar da. Taldea osatzekotan, zortzi euro ordainduko dute helduek eta, lau, hamalau urtez azpikoek. Talde txikia osatzekotan, eta Alegiko Udalak autobusa antolatzen badu, bien artean saiatuko dira jendeari ahalik eta zerbitzu egokiena eskaintzen.



**OSTATUA**

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu  
Tel.: 943 67 15 48

BERASTEGI ▶ GIZARTEA

# Gaztetxokoaren proiekturako diru laguntza onartu da

Gipuzkoako Foru Aldundiak inbertsioaren erdia eman du; Gaztainondo elkarteko berrikuntza obrak hasi dira

IÑIGO TERRADILLOS

Diputatuen Kontseiluak pasa den irailaren 28an onartu zuen Berastegiko Gaztetxoko proiektua Gazte Ekipamenduen Planean sartzea, Errezil, Segura, Urnieta eta Zeraingo gaztetxoko eta gazteleku proiektuekin batera. Udalerri hauek gehituta, 25 ekimen dira Gazte Ekipamenduen Planean sartzen direnak, baina, halere, Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamenduak udalerri gehiago sartzea espero du.

Gauzak honela, Berastegiko Udalak 2001. urtean Gaztetxoko egiteko aurkeztutako proiektua onartu dela eta aurrekontuaren erdia Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku izango da.

Gaztetxoko obrak 2003ko abenduan amaitu baziren ere eta behin behineko izaeraz onarturik bazegoen ere, orain iritsi da proiektu honen erabakete onarpena. Eta Gipuzkoako Foru Aldunditik ezezik, Eusko Jaurilaritzatik ere diru laguntza jasotzeko itzaroten ari dira eskaria egina baitute.

Bestalde, behin obrak amaiturik eta Urepele elkarrekin lokal berritua zuela bertako ki-deak izan ziren antolamenduren kargu egin zirenak, eta



Langileak duela astebete hasi ziren lanean. IÑIGO TERRADILLOS

lokalerako behar zuten materialerako laguntza eskatu zuten Gazteria Departamenduan.

## Gaztainondo elkartea

Berrikuntza gehiago ere badira Berastegin udaletxeak jarritako lokal honetaz gain. Gaztainondo elkartearen eraikina duela urte bete inguru berritu zuten eta orain goiko bi pisuetan dabilta lanean langileak.

Bigarren pisuan eguneko zentro bat jartzea dute helburu eta bigarrenean, berriz, pisu tutelatuak egiten ari dira.

Urte honetako irailaren 30ean esleitu zen ohiko bilku-

ran proiektu hau eta 445.000 euroko aurrekontua du.

Proiektu honetarako ere diru laguntzak eskatu dituzte Udalekoek. Gizarte Ekintza, Eusko Jaurilaritza eta Kutxatik iritsi dira laguntza hauek lehenengo faserako eta bigarren eta hirugarrenarako Gizarte Ekintzak lagunduko du.

Lau hilabetetan espero dituzte obra hauek bukatzea, beraz, abendu amaieran edo hurrengo urteko urtarrilean irekiiko dituzte ateak 20 lagunentzako lekua izango duen eguneko zentroak eta zaintzaileentzat eta beharra dutenentzat egokituriko pisuak.

IBARRA ▶

## Hiru talderen kontzertua, bihar Gaztetxean

Bihar gauean musika izango da protagonista, hiru talderen bisita izango baitu Ibarrrak eta ondorioz, kontzertuan zuzenenan entzuteko aukera izango da Gaztetxean. 22:30ean hasita Hell Beer Boys, Afoña eta Ostiada Oi! taldeek beraien musika eskainiko dute. Ibarrrako Gaztetxekoek antolatzen dituzten ekitaldien barruan sartzen dira kontzertu hauek. Musika estilo hau gogoko duten guztiek Ibarrran izango dute hitzordua bihar gauetik hasita goizalderarte.

IBARRALDEA ▶

## Ikastaro gehiago antolatuko dituzte

Euskal dantza, gimnastika eta eskulanekin hasi dira Leaburun, Orexan eta Belauntzan, baina aurrera begira Txaraman eta Gaztelun hasi nahi dute yoga, gimnastika eta eskulanekin. Bestalde, taldeen arabera, sendabelleren ikastaro praktikoa, eskualdeko sukaldaritza, gozogintza, etxeko ziurtasuna eta garbitasuna eta larrialdiak eta ardo dastatzea ere eskaintzeko asmoa dutela azaldu dute, oraindik ikastaro hauen eguna eta ordua zehaztu gabe duten arren.

LIZARTZA ▶



Etxetik gertu aurkitu zuen Pakita Zirakok onddo hau. HITZA

## Onddo beltz pisutsua aurkitu dute

Lizartzako Pakita Zirakok onddo beltz eder hau topatu du bere etxe inguruko basoan. 1.075 gramo pisatzen ditu, txapelak 88 zentimetroko diametroa dauka eta zuztarrek 24 zentimetro.

Tolosaldeko eta leitzaldeko  
berriak euskaraz



Euskal Herriko eta mundu zabaleko  
berriak ere euskaraz



Aukeratu euskarazko prentsa!

Informazio gehiagorako:  
943 30 43 46 edo harpidetza@hitza.info

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Buruko gaixotasunak herrietan tratatu ahal izatea eskatu dute

ANASAPS-Dizdira elkarteak behar hori badagoela frogatu du; erakundeei zerbitzu hau bermatzeko eskaera egin die



Dizdira-ko Arburuak eta Osesek eman zuten asmo honen berri. J. A.

JAIONE ASTIBIA

Asteazken iluntzean, udaletxe-ko batzar aretoan eman zuten hitzaldian, buruko osasuneko oinarriko zerbitzuak ere, herri edota eskuladeko osasun zentruetan ezartzeko beharraz zitu ziren.

Ainhoa Arburuak eta Felix Osesek eman zuten hitzaldia. Biak hala biak, ANASAPS-Dizdira elkarteak kide ez ezik, arduradun eta sortzaile ere badira. Bata psikologoa da eta elkarte honetako langilea eta bestea, buruko gaixotasun larria duen lagun baten senidea eta elkarteak kolaboratzaile boluntarioa, hurrenez hurren. Bertara bildu zirenek, euren eskutik jaso zuten aipatutako elkarte horren sorrerako arrazo, eginkizun, funtzionamendu eta egitasmoen berri zehatz eta zuzeneko, bata arlo horretako aditu modura hitz eginenez eta besteak bere esperientzia kontatuz.

Han azaldu zutenaren arabera Nafarroan, osasun zerbitzu publikoan buruko gaixotasunak tratatzeko azpegiuririk ez duen zonalde bakarra, mendialdeko hau da. Beharrea aurkituz gero, hemengo biztanleek Iruñearaino joan beharra dute, horrek dakarren atzerabidearekin eta gastuen gehiagotzearekin. «gaur egungo bizmoduak eraginda sortu eta arrunt bihurtu diren hainbat buruko eritasun daude: depresioak, urduritasunak, antsietateak, anorexia eta bulimiak, eskizofreniak... eta hauek tratatzeko ez dago oinarriko atentziorik gure eskualdean. Holakotan gertutasuna garrantzitsua da izugarri eta, diagnostiko eta tratamenduaren azkartasunak sendaketa edota hobekuntzarekin erlazio zuzen-zuzena du. Ezin dira bi edo hiru hilabete itxoin, arazoari kasu egin gabe», zioten. Bestalde, «buruko eritasunak, fisikoak bezelaxe, gaixotasunak

dira, gizaratean horrela hartuak ez diren arren. Eta halaxe tratatuak izan behar dira, ohikoago direnak bezala», erantsi zuten. Horretarako, osasun zentroetan, hilabetean behin gutxienez, psikologia zerbitzua eskaintzeko beharra aldarrikatu zuten, beti ere, noski, horretan aditu den profesionalen esku izanez zerbitzu hori. Horixe da elkarte honen helburu nagusia.

Bitartean, Doneztebeko Mercaderes kalean ireki dute egoitza eta han arreta zuzeneko zerbitzua eskaintzen du psikologo honek, doan, 09:00etatik 14:00ak arte, psikologoaren ohiko lanaz gain, gaixoen senideei buruko gaixotasunen inguruko informazio, orientazio eta aholkularitza lanak ere eginez. Hurrengo estetik aurrera, senideen arteko autolaguntza zerbitzua ere martxan jarriko dutela eman zuten jakitera.

Hala ere, elkarte hau sortu zutenean, arazo hauek jasaten dituzten gaixo eta hauen senideak elkartzeko bidea irekitzeko egin zuten eta denen artean, eritasun hauen tratamendu eta jarraipena familien esku egon beharrean, osasun erakundeek beren gain har ditzaten prezio bide modura. Horretarako «zenbat eta bazkide gehigo izan, orduan eta ahalmen gehiago izanen dugu arazoa badagoela erakusteko eta horri kasu egitea beharrezko dela frogatzeko», argudiatu zuten eta honako telefono zenbaki hau eskuragarri dagoela esan, bazkide egiteko ez ezik, kontsultarako ere: 948 451 443.

LEITZA ▶ GIZARTEA



Urtebete bada, Maxurrenean koartela ezarri zutela. HITZA

## ‘Maxurrenea herrintzat’ urrian ere aldarrikapen

Manifestazioa egingen dute, bihar 19:00etan, ekimenak daraman dinamikaren baitan

J. ASTIBIA

Maxurrenea herrintzat herri ekimenak urrirako antolatuta duen ekitaldia, bihar larunbata, egingen duten manifestazioa da.

*Maxurrenea herrintzat. Alde hemendik!* lelopean, 19:00etatik aurrera abiatuko dira plazatik eta herriko kaleetan barrena egingen dute ibilbidea. Aditza eman dutenaren arabera, jakin, manifestazioa baimendutakoa dela. Bukaeran, ekimen honek antolatuta ohi dituen guztietan bezala, aldarrikapen horrekin bat datorren komunikatua irakurriko dute.

Antolatzaileak, bestalde, ekimen honen berri ere emanez, eskutitzak igorriko ditu Nafarroako Gobernuako departamendu desberdinetara, zein lehendakariari eta Estatuko ordezkariari ere.

Iazko azaroan hasi eta hurrengo abendua arte erabaki zuten egitarauaren arabera, ekimen honek hilabetero-hilabetero ekitaldi desberdinak antolatuta ditu eta biharkoaz

gain, oraindik ere beste bi saio geratzen zaizkio. Ekitaldi hauen guztien antolaketa, txandaka-txandaka ekimen horrekin bat egin zuten taldeen esku dago. Eta esaterako, aurrekoa, irailakoa, IKA eskualtegiak antolatu zuen gisan, edo maiatzakoa Liño putzu eho-ziri lantzaileen elkarteak, hilabete honetako Askatasunak egingen du.

Maxurrenea herrintzat ekimena herriko hogeita hemezortzi talde eta elkarte eragilek eratu zuten eta 1.654 herritarren onespina ere lortu zuten egitasmoaren alde, Maxurrenean kultur etxea egitea, dihardu lanean.

### EKIMENA ▶

### HURRENGOAK

#### Azaroa.

▶ **Berto afaria.** Etxe Txuri elkarteak.

#### Abendua.

▶ **Pilota partida.** Pilota Eskolak.

### iragarki laburrak ▶



**Berrobi.** Eraikuntza berriko etxe abiki unifamiliarrak salgai. 225 m<sup>2</sup>-ko bitzita, 50 m<sup>2</sup>-ko garajea eta 40 m<sup>2</sup>-ko lorategia.

Azkeneko biak gelditzen dira. 2005eko uztailean entregatzeko.

**Gorriti.** Eraikitzen ari den etxe unifamiliarrak zoragarria salgai. 215 m<sup>2</sup>-ko bitzita, 40 m<sup>2</sup>-ko garajea eta 400 m<sup>2</sup>-ko lorategia. Iruñetik eta Donostiatik 25 minutura.

Aukera paregabek!

**Leitza.** Manuel Lasarte kalean, azken bi garaje berriak salgai. Argia, entxufea, ura, desaguetak eta auto-garbitokia dute.

19.232,38 euro..

**Leitza.** Kale Nagusian (Arakindegia etxearen parean) eraikiko diren lokal komertzial ederrak salgai. 1.803,03 euro.

# www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

**Harpidedunei banatua ▶ 2004ko urriaren 8a, ostirala ▶ II. urtea**

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez beroena **24** hotzena **19**

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzola, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Arrieta, Arceña, Balaran, Belaurta, Berastegi, Etxaur, Herriola, Ibarra, Iruja, Lardua, Leizola, Lizartza, Orendain, Orreaga, Tolosa, Villabona, Zubiri

Gipuzkoako Foru Aldundia

Euzko Jaurerria. Kultura Saila

**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**  
 (zalantzak, harpide egiteko...)

**943 30 43 46**

**KILOMETROAK ▶**

Igandean Zarautz-Orion egin ziren zozketen emaitzak.

**AUTOAREN ZOZKETA**

**98.619.** Renault Megane Scenic. (Hilabeteko epea du jasotzeko, bestela 16.681).

**SARRERAKO ZOZKETAK**

- 16.901.** Itsasbidaia Mediterraneoan zehar.
- 16.223.** Landetxean egonaldia.
- 26.630.** La Perla talasoterapia.
- 10.199.** Salsamendiren koadroa.
- 27.923.** Xaloe ostatuan gaua.
- 07.368.** Jatordua Orioko Jose Mari Bodegoian.
- 18.682.** Jatordua Zarauzko Otzarreta jatetxean.
- 01.056.** Jatordua Katxiñan.

**TONBOLAKO ZOZKETAK**

- 2.681.** Bizikleta.
- 7.234.** Surf taula.
- 14.222.** La Perla.
- 11.236.** Otarra.
- 13.436.** Lotus ordularia.
- 8.001.** Adidas ordularia.
- 3.005.** Akuarima.
  - ▶ **Jatorduak**
- 622.** Katxiña jatetxean.
- 83.** Egoki jatetxean.
- 1.611.** Antilla jatetxean.
- 13.749.** Arkupe jatetxean.
- 7.767.** Lorexu jatetxean.
- 5.210.** Kulixka jatetxean.
  - ▶ **Elastikoak edo galtzak**
- 6.625.** De Paularena.
- 1.023.** Xabi Prietorena.
- 2.026.** Karpinena.
- 125.** Alkizarena.
- 13.327.** Mikel Aranbururena.
- 6.504.** Alberto Lopezena.
- 12.266.** Lee Chun Soo-rena.
- 15.** Westerveld-ena.
- 14.325.** Alvaro eta Igor Gonzalez de Galdeanorena.
- 837.** Mikel Perurena.
- 9.402.** Joseba Belokirena.
- 6.524.** Gorka Belokirena.
- 9.725.** Orio Arraun Taldearen materiala.

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Txintxarri Egunerako bazkarirako txartelak salgai Letamendia kafean, Landa okindegian, Erosle dendan eta Maritxu janaridendan 30 eurotan.  
**Leitza.** Kiroldegian ikastaroetarako izen-ematea zabalik.  
**Leitza.** Informatika ikastaroetarako izena eman daiteke Astiz liburudendan.  
**Tolosa.** AHT Gelditu! Elkarlanaren batzarra bihar 10:00etan Kultur Etxean. Eguerdian elkarretaratzea Trianguloan.

**GOIKO IRRATIA (FM 107.0)**

**Tolosa.** Bihar 13:00etan *Kornera* irratsaioa.

**IKUSKIZUNAK**

**Tolosa.** Ander Lipusek *Ardoaz* antzezlan eskainiko du Amaroz auzo elkartearen 22:00etan. Galtzaundik antolatuta.  
**Tolosa.** *Ibilbide 181.a* dokumentala eskainiko dute 19:30ean, Kultur Etxean.  
 Palestinaren Lagunen elkarteak antolatatu du ekimena.  
**Villabona.** Mikel Pagadizabal *Pagadik* eta Jon Iraolak *Rechace imitaciones* umore ikuskizuna eskainiko dute Gurea zinemaren 22:30ean.

**JAIK**

**Berazubi.** Buruhandiak 18:00etan; May Gorostiaga eta lagunek *Stand up comedy* taldearekin 23:30ean; eta ondoren DJ.  
**Ugarte.** Kanpaia jozea eta suziriak 20:30ean jaiak hasteko; herri afaria 21:00etan eta erromeria Xabier trikitilariarekin 22:30ean.

**KIROLAK**

**GAUR**

**Esku pilota** (Elkarteen Arteko Txapelketa)  
 ▶ Elordi-Herrigintza (Iñaki Olano-Aitzol Irure) / Goiherri (Jubenilen 2. maila. 21:00, Ikaztegieta)  
 ▶ Batzoki/ Aurrera-Saiaz (Imanol Pastrain) (Senior 1. maila. 21:00, Errenteria).  
 ▶ San Esteban / Aurrera-Saiaz (Igor Aranzabe-Eneko Galarraga). (Senior 3. maila. 20:00, Berastegi).  
 ▶ Lazkao/ Aurrera-Saiaz (Beñat Iriarte-Xabier Galarraga). (Jubenil 2. maila. 20:00, Lazkao).

**BIHAR**

**Areto futbola**  
 ▶ Zaragoza-Hegoalde (Emakumezkoen Ohorezko Maila. Zaragoza).  
 ▶ Ibarra-Candesa Camargo (1. Maila A. 18:30, Belabieta).  
 ▶ Laskorain-Astrikoitz Mungia (1. Maila B. 17:30, Berazubi).

**Futbola**

▶ Pasajes-Tolosa (Gorengo Maila. 17:30, Don Bosco).  
 ▶ Universidad Navarra-Aurrera (Lurraldeko 1. Maila. Iruñea).  
 ▶ Intxurre-Amaroz (Lurraldeko 2. Maila. 17:00, Elorri).  
 ▶ Danena-Sanpedrotarra (Lurraldeko 2. Maila. 13:30, Elbarrena).  
 ▶ Tolosa-Olarizu (Jubenilen Euskal Liga. 17:00, Berazubi)  
 ▶ Athletic-Tolosa (Kadeteen Euskal Liga. 16:30ean, Lezama)  
 ▶ Beasain-Billabona (Jubenilen 1. Maila. 18:30, Igartza).  
 ▶ Oiartzun-Intxurre (Jubenilen 1. Maila. 15:30, Ugaldexo, Oiartzun).  
 ▶ Tolosaa-Euskalduna (Jubenilen 2. Maila. 11:45, Elorri)

**GALTZAUNDI ▶**



**Aldizkaria.** Galtzaundi.  
**Zenbakia.** 199.a.  
**Orrialdeak.** 28.  
**Tirada.** 5.500 ale.  
**Gai nagusia.** Azoka.  
**Beste gaiak.** Bider Ertzean; Zinemaldia; eskalada; skate; Orfeoia; Txintxarri txiki abesbatza; Inoiz taldea; Multiopicas...  
**Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldea.  
 ▶ Nafarroa etorbidea 5 Tolosa  
 ▶ 943 65 50 04  
 ▶ galtzaundi@galtzaundi.com  
 ▶ www.galtzaundi.com

**Esku pilota.**

(Elkarteen Arteko Txapelketa)  
 ▶ Murumendi 2 / Elordi-Herrigintza (Xabat Ibaguren-Mikel Artola) (Kadeteen 1. maila. 17:00, Idiazabal).  
 ▶ Ramuntxo/ Aurrera-Saiaz (Unai Aspe-Ion Orbegozi). (Senior 3. maila. 11:00, Arteleku).

**ETZI**

**Futbola.**

▶ Tolosa B-Gure Txokoa (Lurraldeko 1. Maila. 11:00, Zubieta).

**Esku pilota.**

(Elkarteen Arteko Txapelketa)  
 ▶ Altzatarra/Aurrera-Saiaz (Ugaitz Renobales-Aimar Galarraga). (Senior 3. maila. 09:45, Altxa).

**AIURRI ▶**



**Aldizkaria.** Aiurri.  
**Zenbakia.** 220.a.  
**Orrialdeak.** 24.  
**Tirada.** 2.000 ale.  
**Gai nagusia.** Ardiak, larretik babesera.  
**Beste gaiak.** Martin Ugalde; Aparkaleku arazoa Villabonan; Asteasuko haurtzaindegia; Enpresa berriak Lardin auzoan.  
**Argitaratzailea.** Larramendi kultur bazkuna.  
 ▶ Kale Berria 47, 3. Villabona  
 ▶ 943 69 64 50  
 ▶ aiurri@topagunea.com  
 ▶ www.aiurri.com

**MUSIKA**

**Alegia.** Tarragonako Cor Ciutat abesbatzaren kontzertua. Elizan bihar 19:45ean.  
**Ibarra.** Hell Beer Boys, Afoña eta Ostiada Oi! taldeak Gaztetxean 22:30etan.  
**Tolosa.** *Opera gaua.* Tolosako Orfeoia eta Iruñeko Concerto orkestra. Bihar 21:00etan Leidor zinemaren.  
**Tolosa.** Tolosako Mairen (Uncle Mussles taldeko abeslaria eta Juanxo Zeberio) eta Anoetako Jone bakarlaria. 22:30ean, Bonberenean

**ZINEMA**

**Tolosa.** *Olvidate de mi.* 22:30ean, Leidor zinemaren.

**ZORION AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Zorionak Xarito Mutxamartxa. Atzoko partez. Etxekoan partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Rosario Arsuaga (Izaskun). Zorionak etxekoan partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Libe Barriola Goikoetxea (Tolosa). Gaur 6 urte. Zorionak etxeko erreginari familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Mireia Arrosopide (Lizartza). Gaur 6 urte. Matraka ederra ari zara egiten. Osaba-zeben partetik.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberrak... zoriontzeak, etorri!  
 HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behean - TOLOSA Udalezteko bulegoa - LEITZA  
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

